

BIZKAIA OREKAN SAKONDUZ-EN 10. URTEURRENA

Posted on 24/04/2026 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [Bizkaia Orekan Sakonduz](#), [Colaboración territorial](#), [Promoción económica local y territorial](#)

Gaur [Bizkaia Oreakan Sakonduz](#)-en 10. urteurrena ospatzeko ekitaldian parte hartu dugu, Bizkaiko eskualde eta tokiko garapena bultzatzeko ekimen giltzarri batean.


NAIDERek programa honekin lotura izan du ia hasieratik, Durangaldea, Arratia, Lea Artibai, Nerbioi-Ibaizabal edo Uribe Kosta bezalako eskualdeetako lurralde-dinamizazio prozesuak modu iraunkorrean lagunduz eta bultzatuz, baita Amorebieta-Etxano, Barakaldo, Bilbao, Durango, Ermua, Etxebarri, Galdakao, Getxo, Leioa, Ortuella edo Plentzia bezalako udalerrietan ere, beste askoren artean.

Bizkaiako **Foru Aldundi**ari zorionak eman nahi dizkiogu tokiko gaitasunak sendotzen eta lurralde-lankidetzarako espazioak sortzen erabakigarri lagundu duen ekimen bat bultzatu eta denboran mantendu izanagatik.

Urteurrena abiapuntu berri gisa baliatzea nahi genuke, gaitze-apustuari, tokiko eragileen ahalduntzeari eta lankidetzan eta lurralde-kohesioan oinarritutako etorkizun partekatua eraikitzeari indarberrituta heltzeko.







ENCUENTRO
BIZKAIA OREKAN
SAKONDUZ 2026
TOPAKETA









